ZARAUZKO UDALA

OBRA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA	PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DE CONTRATO DE OBRAS
ZARAUZKO ARABA ETA BIZKAIA KALEEN ARTEAN KOKATUTA DAUDEN PABILOI INDUSTRIALEN ERAISKETA PROIEKTUKO OBRAK 2023IK200011	**PROYECTO DE DEMOLICIÓN DE PABELLONES INDUSTRIALES UBICADOS ENTRE LAS CALLES ARABA Y BIZKAIA, EN ZARAUTZ** 2023IK200011
1. KONTRATUAREN XEDEA Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuaren xedea da "ZARAUZKO ARABA ETA BIZKAIA KALEEN ARTEAN KOKATUTA DAUDEN PABILOI INDUSTRIALEN ERAISKETA PROEIKTUA"n sartutako obrak egitea. Jokin Idarreta Cardona ingeniari zibila jaunak (ASMATU S.L.) idatzi du proiektua.	**1. OBJETO DEL CONTRATO** El contrato que en base al presente pliego se realice, tendrá por objeto la ejecución de las obras incluidas en el "PROYECTO DE DEMOLICION DE PABELLONES INDUSTRIALES UBICADOS ENTRE ARABA KALEA Y BIZKAIA KALEA EZ ZARAUTZ" redactado por el ingeniero civil Jokin Idarreta Cardona (ASMATU S.L.).
2.- PREZIO KONTRAJARRIAK Prezio kontrajarriak sortuko dira, bakar-bakarrik, Jabetzak erabakitzen badu, Obra Zuzendaritzaren bitartez, unitateak gehitzea edo aurreikusitako unitateren batean kalitate-aldaketak sartzea, edo ezusteko egoeraren bati erantzun behar bazaio. Enpresa kontratista behartuta dago aldaketak egitera. Akordiorik ez dagoenean, Obra Zuzendaritzaren eta enpresa kontratistaren artean erabakiko da prezioa, modu kontrajarrian, lanak egiten hasi aurretik. Oraindik ere aldea badago, lehenik, planeko prezioen taulan kontzepturik antzekoena hartuko da, eta, bigarren aukera modura, herrian gehien erabiltzen den prezio-bankura joko da. Kontratuaren datako prezio unitarioekin alderatuko dira beti egon daitezkeen prezio kontrajarriak.	**2.- PRECIOS CONTRADICTORIOS** Se producirán precios contradictorios sólo cuando la Propiedad por medio de la Dirección de Obra decida introducir unidades o cambios de calidad en alguna de las previstas, o cuando sea necesario afrontar alguna circunstancia imprevista. La empresa contratista estará obligada a efectuar los cambios. A falta de acuerdo, el precio se resolverá contradictoriamente entre la Dirección de las Obras y la empresa contratista antes de comenzar la ejecución de los trabajos. Si subsiste la diferencia se acudirá, en primer lugar, al concepto más análogo dentro del cuadro de precios del plan, y en segundo lugar al banco de precios de uso más frecuente en la localidad. Los contradictorios que hubiere se referirán siempre a los precios unitarios de la fecha del contrato.
3.- BITARTEKO LAGUNGARRIAK, ETA SEGURTASUNA ETA OSASUNA	**3.- MEDIOS AUXILIARES Y SEGURIDAD Y SALUD**

Enpresa lizitatzaileak, eskaintza aurkezterakoan kontuan hartu behar du segurtasun eta osasunari dagokion aurrekontuari ez zaiola beherapenik aplikatuko, nahiz eta planaren aurrekontu orokorrean beste kapitulu bat bezala sartuta egon; eta hori, segurtasun eta osasun gaietan indarrean dagoen legediaren arabera, eta urriaren 24ko 1627/97 Errege Dekretuan oinarrituta (eraikuntza lanetan bete beharreko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena).		A la hora de presentar las ofertas, la empresa licitadora deberá tener presente que según la legislación vigente en materia de seguridad y salud y en base al Real Decreto 1627/97, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y salud en las obras de construcción, al presupuesto correspondiente a la seguridad y salud, aun siendo incorporado al presupuesto general del plan como un capítulo más del mismo, no se le aplicará ninguna baja.
Hori horrela, kontratua gauzatzen hasi baino lehen, enpresa adjudikaziodunak Segurtasun eta Osasun Plan bat egin beharko du, edo, bestela, Arrisku Espezifikoen Ebaluazioa. Plan horretan, Azterketan jasotako aurreikuspenak analizatu, aztertu, garatu eta osatuko dira, egin beharreko eraikuntza-obrei egokituko zaie, eta, betiere, bere gauzatze-sistemaren araberakoa izango da.		En este sentido, previo al inicio de la ejecución del contrato la empresa adjudicataria elaborará un Plan de Seguridad y Salud, o Evaluación de Riesgos Específico en su caso, que analice, estudie, desarrolle y complemente las previsiones contenidas en el Estudio, adecuándolo a las obras de construcción a ejecutar y siempre en función de su propio sistema de ejecución.
Enpresa adjudikazioduna behartuta dago obrak, kontratuan hitzartutako epean, ongi egin ahal izateko behar dituen makina eta bitarteko lagungarriak jartzera.		La empresa adjudicataria queda obligada a aportar a las obras el equipo de maquinaria y medios auxiliares que sea preciso para la buena ejecución de aquellas en los plazos convenidos en el contrato.
Gainera, behar diren neurri guztiak hartuko ditu langileen, oinezkoen eta inguruko jabetzen segurtasuna zaintzeko.		Asimismo, deberá adoptar todas las medidas necesarias tendentes a observar la seguridad del personal operario, viandantes y propiedades colindantes.
Edozein obra-unitate ongi egin eta bukatzeko beharrezkoak diren lanak, bitarteko lagungarriak eta materialak eta laneko segurtasun eta osasuneko unitate edo elementuak obraren prezioan sartuta daudela ulertuko da, nahiz eta prezioen deskonposizio edo deskribapenean horiek guztiak espezifikatu gabe egon. Beraz, horien kostua ez da kontuan hartuko Segurtasun eta Osasuneko Planaren aurrekontua egiterakoan.		Todos los trabajos, medios auxiliares y materiales, así como las unidades o elementos de seguridad y salud en el trabajo, que sean necesarios para la correcta ejecución y acabado de cualquier unidad de obra, se considerarán incluidos en el precio de la misma, aunque no figuren todos ellos especificados en la descomposición o descripción de los precios. Por lo tanto, el costo de los mismos no deberá tenerse en cuenta a la hora de elaborar el presupuesto del Plan de Seguridad y Salud.
Bestalde, aurrekontu orokorrean sartu gabeko aparteko partidarik ez da onartuko, ez sarbideak egokitzeko, ez obrako materiala garraiatzeko edo zamalanak egiteko ere, uste delako prezio horiek sartuta daudela obra-unitateetako prezio unitarioetan.		Por otra parte, no se admitirá ninguna partida extra correspondiente a la habilitación de accesos, transporte y carga-descarga del material de obra, que no esté incluido en el presupuesto general de la obra, puesto que se considera que se encuentran englobados en los precios unitarios de las unidades de obra.
Era berean, enpresa kontratistak bere kontura jarriko ditu honakoak adierazteko behar diren		Asimismo, la empresa contratista deberá instalar por su cuenta las señales precisas para indicar el

seinaleak: obrako sarbidea; lan-guneko trafikoaren edo oinezkoen joan-etorria; arrisku guneak (bai obra-gunekoak, bai horren muga eta inguruetakoak). Horrez gain, pertsonak eta ondasunak babesteko neurriak ere hartuko ditu (egingo den obraren izaerak eskatzen dituenak).		acceso a la obra, la regulación del tráfico o tránsito peatonal en las zonas de trabajo y los puntos de posible peligro, tanto en la propia zona de intervención como en sus lindes e inmediaciones, así como a adoptar todas las medidas de seguridad para las personas y bienes, que exija la naturaleza de la obra.
Makineriaren garraio-lan guztiak ere kontratuaren prezioan sartuta daude; beraz, enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu eguraldi txarragatik, makinak udalerriko puntu batetik bestera eramateagatik eta abarrengatik jasandako ondorio guztiak.		Todo traslado de maquinaria también está incluido dentro del precio del contrato, la empresa adjudicataria deberá asumir todas las afecciones que pueda sufrir debido a las inclemencias atmosféricas, traslado de la maquinaría de un punto a otro del municipio, etc.
4. OBRAKO TEKNIKARIAK		**4. -PERSONAL TÉCNICO ASIGNADO A LA OBRA**
Agiri honen xede den obrari atxikiko zaizkion langile teknikoen artean Obraren buruzagitzaz arduratuko den pertsona egongo da. Bera izango da obrako enpresa eraikitzailearen aldetik solaskide eta ordezkari teknikoa. Bere titulazio eta esperientziarekin gaitasun nahikoa izango du obraren ezaugarriei eta konplexutasunari aurre egiteko (ingeniaria, ingeniari teknikoa, arkitektoa, arkitekto teknikoa).		El personal técnico asignado a la obra objeto del pliego, deberá contar con una persona que ejerza la Jefatura de Obra que asumirá la interlocución y representación técnica de la empresa constructora de la obra y que por su titulación y experiencia tendrá la capacitación adecuada de acuerdo con las características y la complejidad de la obra (Ingeniería, Ingeniería Técnica, Arquitectura, Arquitectura técnica).
Obrako buruzagitza betetzen duena enpresa kontratistaren ordezkaria izango da, Udalak izendatutako gerentziarekin eta Obrako Zuzendaritzarekin aritzeko, beraz, bera izango da aldeen arteko komunikazio-bide formala.		Quien ejerza la jefatura de Obra será la persona representante de la empresa contratista frente a la gerencia designada por el Ayuntamiento, y la Dirección de Obra, en consecuencia, cauce de comunicación formal entre las partes.
Bere presentzia jarraitua izango da, eta une oro Obra Zuzendaritzaren eta Udalak izendatutako gerentziaren esanetara egongo da.		Su presencia deberá ser continuada, debiendo estar en todo momento a disposición de la Dirección de Obra y de la gerencia designada por el Ayuntamiento.
5. AZPIKONTRATISTAK ETA HORNITZAILEAK		**5.-SUBCONTRATISTAS Y EMPRESAS SUMINISTRADORAS.**
sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak 215. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz, eta bertan exijitutako betebeharrak betetzen badira, enpresa adjudikaziodunak hirugarrengoekin hitzartu ahal izango ditu kontratuaren zati batzuk.		De conformidad con lo establecido en el artículo 215 de la Ley de Contratos del Sector Público, y sometido al cumplimiento de los requisitos exigidos, la empresa adjudicataria podrá concertar con terceros la realización parcial del contrato.

Enpresa adjudikaziodunak egingo dituen azpikontratuen zerrenda aurkeztuko du, eta bertan adieraziko du azpikontratista bakoitzak kontratuaren zein zati egingo duen.		La empresa adjudicataria deberá presentar la relación de los subcontratos a celebrar, con indicación de las partes del contrato a realizar por cada subcontratista.
Gainera, obra egitean kontuan izan beharko da adjudikaziodunak materialen edo azpikontratisten hirukote bat proposatu beharko duela, Zuzendaritza Fakultatiboari egoki iruditzen zaionean; hiru horietako bat Zuzendaritza Fakultatiboak proposatu ahal izango du.		Asimismo, se tendrá en cuenta a la hora de ejecutar la obra, que la empresa adjudicataria deberá proponer, cuando la Dirección Facultativa estime pertinente, una terna de materiales o empresas subcontratistas de los que una de ellas podrá ser propuesta por la Dirección Facultativa.
Enpresa azpikontratistak aldatu nahi badira, aurretik Udalaren berariazko baimena lortu behar da.		La alteración de dichas empresas subcontratistas deberá contar con la autorización expresa del Ayuntamiento
6.- LANEKO PROGRAMA		**6.- PROGRAMA DE TRABAJO**
Lizitazio-prozesuan zehar egindako gogoetak kontuan hartuta, obren enpresa kontratistak lan-programa bat aurkeztu beharko du.		Teniendo en cuenta las consideraciones realizadas durante el proceso de licitación, la empresa contratista de las obras deberá presentar un programa de trabajo.
Zarauzko Udalak lan-programari buruzko ebazpena hartuko du, hura aurkeztu eta hurrengo hamabost egunen barruan, eta aukera izango du aldaketak sar daitezela edo zenbait preskripzio bete daitezela agintzeko, baldin aldaketok kontratuaren klausulen aurka ez badoaz. Onespen horretan oinarritua, Administrazioak dagozkion epe partzialak jarriko ditu.		El Ayuntamiento de Zarautz resolverá sobre el programa de trabajo dentro de los quince días siguientes a su presentación, pudiendo imponer la introducción de modificaciones o el cumplimiento de determinadas prescripciones, siempre que no contravengan las cláusulas del contrato. En base a dicha aprobación se fijarán, por la Administración, los plazos parciales correspondientes.
Kontratuaren baldintzak aldatzen diren bakoitzean, enpresa kontratistak eguneratu egin beharko du Lanen Programa, eta Administrazioak emandako aginduen arabera finkatu edo eguneratu beharko du.		El Programa de Trabajos deberá actualizarse por la empresa contratista cada vez que se modifiquen las condiciones contractuales, procediendo a la fijación o actualización y puesta al día del mismo conforme a las instrucciones que reciba de la Administración.
Era berean, Obra Zuzendaritzak, beharrezkoa iruditzen zaionean, aukera izango du obraren zati desberdinei buruzko azalpenak, gauzatze-plan xehatua edo planoak edo kalkuluak eskatzeko, obrak egin aurretik eta onartuak izan daitezen; baldintza hori gabe ezin izango dira obrak egin.		La Dirección de obra podrá, asimismo, cuando lo crea necesario, solicitar aclaraciones sobre las distintas partes de la obra, plan detallado de ejecución o realización de planos y cálculos suplementarios, antes de la ejecución de las mismas y para su aprobación, sin cuyo requisito no podrán llevarse a cabo.
Obrako zuzendariak erabaki dezake ziurtagiriak ez egitea, harik eta kontratistak laneko programa behar den bezala aurkezten duen arte. Kasu		La Dirección de la obra podrá acordar no dar curso a las certificaciones hasta que la empresa contratista haya presentado en debida forma el

horretan ez da berandutzako interesik jasotzeko eskubiderik izango, ziurtagirien ordainketan izandako atzerapenagatik.	programa de trabajo, sin derecho a intereses de demora, en su caso, por el retraso en el pago de estas certificaciones.
7.- OBRAKO BISITAK	**7.- VISITAS DE OBRA**
Udalak izendatutako perstonari beharrezkoa iruditzen zaion guztietan egingo dira obrako bisitak, eta gutxienez astean behin. Bisita horietan derrigorrez joango dira Obra Zuzendaritzako teknikariak eta Obrako burua, eta aldian-aldian Udalak izendatutako kideren bat.	Las visitas de obra se realizarán siempre que la persona designada por el Ayuntamiento lo considere necesario, y al menos una vez a la semana. A las mismas acudirán obligatoriamente el personal técnico de la Dirección de Obra y quien ejerza la jefatura de Obra y periódicamente alguna persona designada por el Ayuntamiento.
8.- GAUZATZEKO BEHAR DIREN BAIMENAK	**8.- AUTORIZACIONES PRECISAS PARA LA EJECUCIÓN**
Enpresa adjudikaziodunak egin beharreko kudeaketak egingo ditu, lanak egiteko behar diren baimenak lortzeko, bai enpresa hornitzaileen aurrean bai Administrazio eskudunen aurrean, nahiz eta eskaera formalak Udalak bete.	La empresa adjudicataria deberá realizar las gestiones precisas, tanto ante empresas suministradoras, como Administraciones competentes, para la obtención de las autorizaciones que sean precisas para la ejecución del plan, sin perjuicio de que las solicitudes formales sean cumplimentadas por el Ayuntamiento.
9.- OBRAKO MATERIALEN ETA UNITATEEN SAIAKUNTZAK ETA AZTERKETAK	**9.- ENSAYOS Y ANÁLISIS DE LOS MATERIALES Y UNIDADES DE OBRA**
Zuzendaritzak obrako material eta unitateen saiakuntzak eta azterketak egiaztatzea agindu dezake, beharrezkoa iruditzen zaion bakoitzean..	La Dirección puede ordenar que se verifiquen los ensayos y análisis de materiales y unidades de obra que en cada caso resulten pertinentes.
Zuzendaritzak berak finkatuko du saiakuntzak eta azterketak egiteko lagin eta probetek izan behar dituzten forma, dimentsio, kopuru eta gainerako ezaugarriak, baldin horrelakoak finkatzeko xedapen orokorrik ez badago, edo baldintza teknikoen agiriak datu horiek ematen ez baditu.	La misma Dirección fijará el número, forma y dimensiones y demás características que deben reunir las muestras y probetas para ensayo y análisis, caso de que no exista disposición general al efecto, ni establezca tales datos el pliego de prescripciones técnicas particulares.
10.- OBRAKO ITXITURAK ETA SEINALEAK	**10.- CIERRES Y SEÑALIZACIÓN DE OBRA**
Babes hesi bat jarri beharko da. Hori dela eta, krokis bat aurkeztuko da, eta bertan marraztuko da okupatuko den zoru publikoaren eremua. Udal Zerbitzu Teknikoek oniritzia eman beharko diete hesiaren kokapenari, dimentsioari eta	Deberá colocarse una valla protectora. A estos efectos deberá aportarse un croquis en el que se grafiará el ámbito de suelo público objeto de ocupación. La disposición, dimensión y características de la valla, así como la solución de

ezaugarriei, bai eta oinezkoentzako pasabideak bideratu eta desbideratzeko soluzioei ere. Obragatik jarritako behin-behineko babes eta seinale elementuak bat etorriko dira, irisgarritasun baldintzei buruz, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak II. eranskineko 4.3 artikuluan, xedatutakoarekin. Dena den, oinezkoentzako behin-behineko pasabideak gutxienez oztoporik gabeko 1,50 m-ko zabalera izango duela bermatuko da. Espaloiaren zabalera estuagoa bada, pasabideak horren neurri bera izango du.		pasos peatonales y desvíos, deberá obtener el visto bueno de los Servicios Técnicos Municipales. La protección y señalización de elementos provisionales motivados por la obra se ajustarán a lo establecido en el art. 4.3. del ANEJO II del Decreto 68/2000, de 11 de abril, sobre condiciones de accesibilidad. En todo caso, el itinerario peatonal provisional garantizará un paso mínimo libre de obstáculos de 1,50 metros. En el caso de que la acera tenga un ancho inferior, el paso será igual a esta.
Enpresa adjudikaziodunak obligazioa du ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa segurtasun nahikoarekin edukitzeko. Hori lortzeko arauzko hainbat neurri hartuko ditu. Seinale bertikal eta/edo horizontalekin, informazioko kartelekin eta errotulu adierazleekin, oinezkoen, auto-gidarien eta obrako langileen segurtasuna bermatuko du une oro. Ahaleginak egingo dira galtzada eta espaloiak ere garbi edukitzeko, bide segurtasuneko arrazoiengatik.		La empresa adjudicataria tiene la obligación de mantener la circulación rodada y peatonal en condiciones suficientes de seguridad, lo que exigirá la adopción de medidas reglamentarias de señalización vertical y/o horizontal, carteles informativos y rótulos indicadores que garanticen en todo momento la seguridad de los peatones, de los automovilistas y del propio personal de la obra. Asimismo, se cuidará la limpieza de las calzadas y aceras por motivos de seguridad vial.
Jarriko diren trafiko seinaleak arauzkoak izango dira, eta horien kokapena bat etorriko da bai hiri ezaugarriekin, bai obrako zonak duen kokapenarekin (eragindako bide-zatiarekiko).		Las señales de tráfico a colocar serán las reglamentarias, ajustando su disposición a las características urbanas, así como a la localización de la zona de obras en relación con el tramo viario afectado.
Euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da obrako segurtasun neurriak adierazi eta xedatzeko kontratistak jarri beharreko seinaleen testua.		Asimismo, el texto de las señales que debe instalar la empresa contratista para indicar y establecer las medidas de protección de la obra, tanto en euskara como en castellano.
Aldi berean, aipatutako seinaleetan ezin izango dute hizkuntza eta irudi sexistak erabili.		Asimismo, en las mencionadas señales no se podrá utilizar lenguaje e imágenes sexistas
11. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK		**11. OTRAS OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA**
Obren exekuziorako beharrezkoak diren hartuneak (argindar, telefono eta abarren hornidura) —baita Zuzendaritza Fakultatiboaren kasetakoak eta gainerako obra-kasetetakoak— enpresa adjudikaziodunaren kontura egingo dira, bai hartune horiek lortzeko egin beharreko kudeaketak bai horien kontsumoak —Zuzendaritza Fakultatiboaren kasetako telefonoaren kontsumoa izan ezik—. Gainera Udalean aurkeztu beharko dira ur eta		Las acometidas de obra necesarias para la correcta ejecución de las mismas –incluso acometidas a las casetas de obra para la Dirección Facultativa y resto de casetas de obra- , correrán a cargo de la empresa adjudicataria (suministro de energía eléctrica, telefonía etc.), tanto las gestiones oportunas para la obtención de las citadas acometidas como los consumos correspondientes-excepto consumo de telefonía de la caseta de la Dirección Facultativa-. Asimismo se deberán presentar en el Ayuntamiento las pertinentes

saneamendu hornidurako hartuneen derrigorrezko eskaerak.		solicitudes de acometida de abastecimiento de agua y saneamiento.
Baldin eta obren ondorioz azpiegitura sareak, kutxetak, kutxeten tapak, estolda-zuloak, hiri altzariak, argiak, lorategiak, zoladurak, edo urbanizazioko beste osagai batzuk berriz jarri edo aldatu behar badira, horiek obran jarri aurretik, Udal Zerbitzu Teknikoen adostasuna lortu beharko da.		En el caso de que las obras afecten a la reposición o modificación de redes de infraestructuras, arquetas, tapas de arquetas, sumideros, elementos de mobiliario urbano, luminarias, jardinería, pavimentación, u otros elementos componentes de la urbanización, con antelación a la puesta en obra de los mismos se deberá obtener la conformidad de los Servicios Técnicos Municipales.
Kontratistak plan bat aurkeztu beharko dio jabetzari, adierazteko obran sortuko diren eraikuntza eta eraispen hondakinen inguruko bere obligazioak nola beteko dituen. Plan hori obrako kontratu agirietan sartuko da, Zuzendaritza Fakultatiboak ontzat eman eta jabetzak onartu ondoren.		La empresa contratista estará obligada a presentar a la propiedad un plan que refleje cómo llevará a cabo las obligaciones que le incumban en relación con los residuos de construcción y demolición que se vayan a producir en la obra. El plan, una vez aprobado por la dirección facultativa y aceptado por la propiedad, pasará a formar parte de los documentos contractuales de la obra.
Beste alde batetik, hondakinen kudeaketako obra-amaierako dokumentazio guztia aurkeztu behako dio kontratistak Udalari Zuzendaritza Fakultatiboak emandako jarraibideen arabera, Zuzendaritza Fakultatiboaren oneritziarekin.		Por otra parte, la empresa contratista deberá entregar al Ayuntamiento toda la documentación final de obra relativa a la gestión de residuos según instrucciones de la Dirección Facultativa, que deberá ser aprobada por la Dirección Facultativa.